

GARRAIO LARIOK



GARRAIOLARIEN EUSKAL HERRIKO
SINDIKATUAREN ALDIZKARIA

132. ZK

2025/01



Otsailera arte
luzatu da
takografo berria
jartzeko epea

Bittor Rodríguez

Navidades en el Polo Norte



Formamos parte de tu negocio

Solred te ofrece las mejores soluciones para el control y gestión de tus vehículos, además de muchas otras ventajas:

- Gestión online de tu negocio.
- Las mejores condiciones comerciales.
- Más de 3.900 Estaciones de Servicio en España y Portugal.



REPSOL

Inventemos el futuro

Más cómodo. Más rápido. Mejor.



Paga el carburante, con control y seguridad, sin necesidad de pasar por caja.



Paga los peajes sin necesidad de parar.

Infórmate en repsol.com, en el
902 136 137 o en solred@repsol.com



EDITORIALA

Urte berri on

Urte berriak itxaropen eta amets berrituak ekarri ohi ditu besapean. Dena den berritasunak poz gutxi eta kezka asko eragin ditzake sarri. Aldaketak okerrerako ere izan daitezke eta. Urteko lehen egunotan denetarik izango dugu, irudipen eta esperantza onak, ilusioa, erronka berrien lilura, poza, bizimodua aldatzeko gogoia eta grina... Baina egunerokoak bizitza bere bidera eramango du eta asmo on horiek guztiak zapuztuko ditu. Udaberrirako pasatuko dira eta betiko normaltasunean murgilduko gara.

Garraiolarien artean berritasuna da, askok urtearekin takografo digital berria estreinatu dutela. Nahitaezkoa baita, derrigorrezkoa, nazioartean dabilzantentzat martxotik aurrera. Adimentsua da, analogikoa baino bizkorragoa, adimen artifizialak neurrigabeko presentzia duen garaian, garaikoa. Datuak hobeto jasotzen eta kudeatzen ditu aparatu berriak.

Eta aldi berean kontrola ere areagotu da, bai garraioan eta baita gizartean, oro har. Urrutitik begiratu eta behatu daitezke kamioiaren ibilbidearen eta gidariaren jokabideari buruzko datu eta informazioa. Bai, poliziek, eta baita gidarien nagusiek ere.

Takografo berria doan jarri dute garraiolari autonomoek. Askok jaso dute laguntza. Orain, ordenagailua ere doan eskuratzeko aukera dute. Europatik datozen sosei esker langile autonomoei konputagailua oparitzen zaie. Eguneroko gestioak errazago egiteko. Edota web orrialdea sortzeko.

Honek ez dauka bueltarik. Dena da telematikoa. Adimen artifiziala ere ez da jada zientzia fikzioa. Hemen dago. Gure artean. Gizateriaren historiako mugarrri batean gaude. Aspaldi esan zidan garraiolari batek. Pertsona adimentsuak behar direla eta ez errepide edota aparatu adimentsuak.

Aurrerapen handi honek ez dakar ordea segurtasun aldetik hobekuntza nabarmenik. Lan istripuan hiltzen diren garraiolarien eta beste langileen kopurua ikaragarria da. Benetan eragiten du ikara estatistikak. Hilero hiltzen da garraiolari bat Euskal Herriko errepideetan, 12k galdu dute bizia 2024an. Astero gutxienez euskal langile bat hil da bere jardunean. Guztira 64 hil dira Euskal Herrian. Patronalak ez ditu segurtasun neurriak betetzen, irabaziak, etekina, lehenesten ditu langileen segurtasun eta bizitzaren gainetik. Instituzioek beste aldera begiratzen dute heriotza datu horien aurrean, ez dituzte nahikoa neurri hartzen istripuak gerta ez daitezen.

Adi, beraz, garraiolari. Aurrera begiratu, zaindu, ea aurten ez dugun lankide eta lagunik galtzen lanean. Urte ona litzateke. Ea ba!

La tecnología avanza, las normas se afinan, pero no mejora sustancialmente la propia seguridad del transportista; no cesan ni se reducen los accidentes laborales y las muertes en el camión. Las estadísticas son sobrecogedoras. Cada mes muere un transportista en las carreteras vascas, doce perdieron la vida en 2024



Eli Salvatierra

Primeras sentencias sobre el cártel de camiones

Después de varios años batallando en los Juzgados, el equipo jurídico contratado por el sindicato Hiru a tal efecto, ha conseguido la primera sentencia favorable en el caso del Cártel de Camiones contra las marcas fabricantes por el sobrecoste que cobraron tras haber pactado precios durante años.

En este caso, se trata de una sentencia dictada contra DAF en la que el juez da la razón a los seis afiliados de Hiru que reclamaron una compensación a la citada marca y resuelve que vayan de forma inminente a cobrar las cantidades que el Juzgado ha establecido. La decisión ya es firme por que la marca no ha recurrido.

En concreto, la sentencia determina que los transportistas afectados van a cobrar el 5% sobre el precio de compra, más los intereses. Si bien es cierto que en un primer momento algunos juzgados otorgaron porcentajes más elevados, ha sido el Tribunal Supremo el que ha fijado finalmente el 5% como indemnización por

el sobrecoste abonado y parece que todas las resoluciones van a ir en ese sentido.

El sindicato irá informando a los afectados a medida que los recursos presentados vayan resolviéndose.

«Epaileak arrazoia eman die DAF markaren aurka egin zuten Hiruko sei kideri eta ebatzi du berehala kobratuko dituztela epaitegiak ezarritako zenbatekoak. Erabakia irmoa da, markak ez duelako errekurtsorik jarri»



Jon Altuna

Gure garraiolarien berezitasunak

Aipatu nuen aurreko batean egoera benetan harrigarriak pairatzen dituztela gure garraiolariak. Etxetik atera orduko bidesaria ordaintzen dute Gipuzkoan eta Bizkaian ia bide orotan. Nafarroan datorren urtetik aurrera eta Araban ere jarriko dute aurrerago. Mauka da Aldundiarentzat.

Gidaldi eta atsedenaldiak neurtzen dituzten takografoen araudi berriak ere Euskal Herriko garraiolarien errealitate bitxia agerian utzi du. Hendaia eta Baionatik Olaberriara joan-etorriak egiten dituztenek, derrigorrez, jarri behar izan dituzte bigarren belaunaldiko takografo berriak isunak saihesteko. Ez dira Euskal Herritik ateratzen, baina Europako legediaren arabera, nazioarteko garraioan ari dira. Bartzelonara edo Madrilera joaten direnek, aldiz, ez dute, nahitaez, takografo berria jarri beharrik.

Pilotan ere gertatzen da egoera bitxirik: bi pilotari euskaldun bata bestearen aurka lehiatzea, adibidez, Munduko Txapelketan, batak Espainia ordezkatuz eta besteak Frantzia. Orain Nazioarteko Euskal Pilota Federazioak onartu du Euskadiko Federazioaren ofizialtasuna, Nazioartekoan eskubide osoko kide izatea, alegia. Lehen urratsa izan da euskal pilotariak nazioarteko lehiaketetan Euskal Herria ordezkatuz joka dezaten. Nazioarteko Pilota Federazioak euskal selekzioa ofizial izendatzea erabaki badu ere, Madrilera du azken hitza. Ez du momentuz

erabakia onartzeko borondaterik adierazi. Erkidegoko pilotariak izango lukete parte hartzeko eskubidea Euskadiren izenean. Pausu bat da beste kirol batzuetan ere esaterako Gales edo Eskoziari aitortzen eta ematen zaien aukera izateko.

Euskal Herriaren burujabetzaren aldeko pausua da, bestalde, euskal sindikatuen ustez Hego Euskal Herriko errealitate sozioekonomikoa eta sindikala islatuko duen gutxieneko soldata propioa. Horixe aldarrikatu dute, hemengo administrazioek soldata hori finkatzeko eskubidea izan dezatela eta hori guztia lortzeko prozesua abiatu urtarrilaren 8an Nafarroako eta Erkidegoko Parlamentuetan Herri Ekimen Legegilea eskatuta.

«Los transportistas de Hiru que cargan o descargan en el puerto de Baiona o en la estación de Hendaia hacen `transporte internacional´ y se han visto obligados a instalar el nuevo tacógrafo digital para evitar sanciones»

Aurkibidea



IRITZIA



03 EDITORIALA
Aurten nobedadea, garraiolari askok takografo berria estreinatu dutela izango da

04 ABOKATUAREN TXOKOA:
Lehen epaiak alde prezioak adostu zituzten kamioi marken kasuan
Eli Salvatierra

05 IRITZIA
Euskal Herriko garraiolarien berezitasunak
Jon Altuna



ZER BERRI?



08 Hilero garraiolari bat hiltzen da Euskal Herriko errepideetan. Estatistika latza izan da 2024an ere

10 Bost errepidetan kamioiei bidesaria jartzeko prestatzen ari da Nafarroako Gobernua. 2026an hasteko asmoa du

12 Errelebo ezari leporatzen dio Guitrans elkarteak gidari profesionalen premia larria



ZER BERRI?



14 Gutxieneko soldata propioa eskatzeko elkartu dira euskal sindikatuak. Herri ekimen legegilea abian jarri dute

15 Hitzaldia antolatu du Hiruk Lasarten Kit digitalaren bidez ordenagailua doan eskuratzeko aukerari buruz

17 «Behin betiko, bake, konponbide eta elkarbizitza» eskatu du Euskal Herriko langileriak kalean

▶ AZALEAN

Gabonak etxetik kanpo pasa zituen 1995ean Bittor Rodriguezek Ipar Polotik gertu



ERREPORTAJEA



18 Otsailera arte luzatu da bigarren belaunaldiko takografo digital berria kamioian jartzeko epea

24 **Bittor Rodríguez:** «28 gradu zero azpitik zeuden Suedian, Ipar Polotik gertu, egin nuen joan-etorri batean»

32 DENBORA-PASAK



ALBISTEA



28 Elurra egiten duenerako aholkuak jakinarazi dituzte Trafikoko Zuzendaritzako arduradunek

31 Hiru sindikatuak eskainiko dizkie 2025ean bazkideei merkatuko aseguru baldintzarik onenak eta eraginkorrenak

34 HIRUren bulegoak

Garraiolariok aldizkariaren erredakzioa
Oria etorbidea 10,
406 bulegoa 20160,
Lasarte-Oria (Gipuzkoa)

Tel.: 943 364 092
629 103 093
email: garraio@hiru.org

Erredakzioa:
Jon Altuna Iza

Diseinua:
Sorland

Argazkilaritza:
Hiru

MUGI Koop. E.k argitaratua
(editore), Lege Gordailua
(D.L.): VI-67/01

Inprimategia:
Gertu inprimategia

Tirada:
3.000 ale

Garraiolariok aldizkariak irakurleen eta afiliatuen eskutitzak argitaratzen ditu, baina ez da edukien erantzule egiten. Beraz, gutunak, egilearen izen-abizenak eta NAN edo ENA eraman behar ditu. Ez dira irainak dauzkaten eskutitzak onartuko. Gutunak helbide honetara bidali ditzakezue: garraio@hiru.org, edo eskutitzez, Oria etorbidea 10, 406 bulegoa, 20160 Lasarte-Oria (Gipuzkoa).

Hilero hilero garraiolari bat hil da Euskal Herriko errepideetan 2024an

El año 2024 ha sido dramático en las carreteras vascas. 12 transportistas han fallecido trabajando con su camión. Uno cada mes. El trágico porcentaje se mantiene en los últimos años a pesar de las interpelaciones de los sindicatos a patronal y Administración. LAB, ESK, STEILAS, Hiru y ENHE-Etxalde una y otra vez denuncian que la alta incidencia de siniestralidad laboral mortal en las carreteras está relacionada con la precariedad y las malas condiciones laborales; también reivindican el derecho de los trabajadores a tener una jubilación digna después de tantos años en su respectiva tarea y que se pueda adelantar la edad a los 60 años, sobre todo de todos aquellos que corren riesgos de tener un contratiempo.

«Prekaritateak hil egiten du. Patronalak eta Instituzioek gaixotu eta hiltzen gaituzte» leloa behin eta berriro aterata dute kalera LAB, ESK, STEILAS, Hiru eta ENHE-Etxalde sindikatuek 2024an zehar. Hainbat elkarretaratze egin dituzte. Izan ere, 64 langile hil dira 2024an lan istripuetan, horietatik 12 garraiolariak. Garraiolari bat hil da hilero batez beste. Estatistika latza da. Sindikatuen ustez, istripu eta heriotza kopuru handi hori lan-baldintza kaskarrekin lotuta dago.

Aipagarriak dira zenbait kontu. Lehenengoa hildako garraiolarien adina. Ia guztiak dira 55 urtetik gorakoak. Argi da adin batetik aurrera arrisku handiagoa dutela gidariek, arreta galdu, bihotzekoren bat izan, konortea galdu eta azken finean bazterra jo, ez-beharra izan eta bizia errepidean galtzeko.

Esanguratsua da bihotzekoen kopurua ere. Hiru aspalditik ari da eskatzen garraiolariak garaiz erretiratzeko neurriak. Beste lanbide batzuei aitortzen zaie, 60 urterekin erretiratzeko besteak beste, polizia edota suhiltzaileak. Gainera, administrazioak osasun arloko araudiak eta plangintzak finkatzen dituen garraioaren sektorean den bihotzeko arazoaren kopuru handia kontuan izateko eskatzen du sindikatuak.

Garraioaren sektorea asko zahartu da. Ez dago erreleborik, ez dabil gazterik kamioiarekin. Garraiolarien baldintzak asko kaskartu dira.

Hilero hiltzen da garraiolari bat gutxienez Euskal Herriko errepideetan.

Beraz, 60 urterekin jubilatzeko aukera pizgarri bat litzateke. Bestela, orain ari diren garraiolari beterranoak erretiratzeko direnean ez da hurbileko garraiolari autonomorik lanean izango gizartearen eta enpresen beharrei erantzuteko. Lan guztiak enpresa handien esku geratuko dira.

Urtean zehar hainbat elkarretaratze egin dituzte LAB, ESK, STEILAS, Hiru eta ENHE-Etxalde sindikatuek. Batzuk ez-beharra gertatu den edo garraiolariari lana

La tasa de siniestro laboral de transportistas mayores de 55 años es tres veces superior a otros sectores en el mismo rango de edad



Los sindicatos se concentraron frente a las oficinas de la Seguridad Social en Donostia y Bilbo.

Los sindicatos reivindican el derecho de los trabajadores a tener una jubilación digna después de tantos años en la tarea

ematen zion enpresaren aurrean. Urte amaieran bi egin dira Donostiako eta Bilboko Segurantzaren Sozialaren bulegoen aurrean, langileek garaiz erretiratzeko duten eskubidea aldarrikatzeko; hau da, hainbeste urte lanean eman ondoren erretiro duina izan dezaten, langile orori jubilazioaren adina 60 urtera aurreratze aukera eman,

alegia; batez ere ezbeharren bat izateko arriskuan daudenei.

Aspaldiko aldarrikapena

Garraiolarien erretiroa 60 urtera aurreratze aldarrikapena zaharra da. 55 urtetik gorako garraiolariak beste edozein sektoreko eta adin horretako langileek baino askoz lan-istripu gehiago

dituzte, hiru aldiz handiagoa da ez-beharren kopurua. Sektorea zahartzen ari da, ez dago erreleborik, gazteak ez dira garraioan hasten lan-baldintzak ez direlako duin, interesgarri eta erakargarriak. Beraz, garraiolari gehienak zaharrak direnez, arriskua benetakoa eta larria da.

Argi dago adin batetik aurrera errazago galduko duela edonork arreta gidatzerakoan, arrisku handiagoa duela konortea galtzeko ere, eta istripu bat eragiteko; azken finean, garraiolariaren beraren eta errepideetako gainerako gidarien bizitza arriskuan jartzeko. Kontuan izan behar da garraiolariak tona asko daramatzatela bizkarrean, eta sarri bezeroen presa eta presioak jasaten dituztela.

A partir de cierta edad hay más riesgo de perder el conocimiento y poner en riesgo su propia vida y del resto de conductores

Kamioiei bidesaria jartzeko Europaren oniritzia jaso du Nafarroako Gobernuak

El plan para cobrar peaje a los camiones a partir de 2026 en cinco carreteras de «alta capacidad» en Navarra sigue avanzando. El Gobierno navarro ya ha creado la Sociedad Pública Nafarbide que pondrá en marcha y gestionará la tasa y, por otro lado, tiene ya el permiso de Europa. La UE determinó el 12 de septiembre pasado que el proyecto de peaje cumple la normativa europea. Los camiones pagarán 28 céntimos por kilómetro por circular en 167 kilómetros de las autovías del Norte (A1); Sakana (A10); Leizarán (A15); y Ebro (A68) así como en la carretera N121A que une Iruña con la muga en Behobia.

Nafarroako bost autobidetan bidesaria jartzeko egitasmoak aurrera jarraitzen du pausuz pausu. Batetik, Nafarbide sozietate publikoa sortu zuen herrialdeko Gobernuak tasa hori N121A errepidean, eta A1, A10, A15 eta A68 autobideetan martxan jarri eta kudeatzeko. Bestetik, irailaz geroztik, Europar Batasunaren baimena du aurrera egiteko. Urte eta erdiko gestioen ondoren, Europako Batzordeak irailaren 12an onartutako irizpen batek baimentzen du tasa. EBk dio Nafarroan aurreikusitako bidesari-sistema bat datorrela europar araudiarekin, eta, beraz, azpiegitura horiek erabiltzeagatik kobratzeko baimena dauka Nafar Gobernuak.

Nafarroako bidesaria ez da nobedadea izango euskal garraiolariarentzat. Gipuzkoan eta Bizkaian jada ordaintzen

dute ibilgailu astunak: 2023ko urtarrilaren 23tik Gipuzkoan N1 eta A15 errepideen ibilbide osoan; 2024ko urtarrilaren 25etik Bizkaiko N240 Barazar eta BI625 Urduñako errepideetan; eta aurtengo ekainaren 1etik, A8 eta BI10 errepideetan Basurtutik Kantabriara; N636 errepidean Durangotik Gipuzkoara eta Txorierriko korridorean, BI30, Gurutzeta Erletxe artean.

Hiruk behin eta berriro esan du dirua biltzeko asmoa dagoela bidesarien atzean, hau da, Aldundiak eta Gobernuak garraiolariak erabiltzen ari direla dirua biltzeko. Erkidegoko

Aldundiek eta Nafarroako Gobernuak, garraiolariak laguntza eman beharrean, euren egoera eta sektorea estutu du. Azken finean, garraiolaria da aurretik bidesaria ordaintzen duena, gero gastu berri hori bere bezeroei pasa beharko die, eta kontsumitzailea izango da azken batean ordaintzen duena. Baina, printzipioz, zailtasunak garraiolariarentzat dira.

Aitzakia ezberdinak darabilte Administrazioek, garraiolarien erabilera eta diru-bilketa kritikei erantzuteko. Gipuzkoan behin eta berriz aldarrikatu dute «erabiltzen eta kutsatzen duenak ordaindu dezala». Garraiolariak begira jartzen da, baina benetako erabiltzaileak eta, beraz, kutsatzen dutenak gizartea eta industriak dira, horientzat egiten baitu lan garraiolariak.

Bizkaian, Foru Aldundiko arduradunek, aldiz, trafikoa berrantolatzeke jarri dela esan dute, errepide batzuk gainezka zeudela, alegia. N240 eta BI625 errepideetan bidesaria jarri baino, guztiz kontrakoa egin beharko lukete benetan kamioiak AP8ra eta Supersurrera bideratu nahi baldin badituzte; hain juxtu,

Hiru reitera el afán recaudatorio de los peajes que ya cobran a los camiones en las carreteras de Gipuzkoa y Bizkaia



El Gobierno navarro pretende implantar el peaje en 2026.

BOST AUTOBIDE NAFAR

- A1 Iparraldekoa 13,8 km.
- A10 Sakanakoa: 30,4 km.
- A15 Leitzarangoa: 27,6 km.
- A68 Ebrokoa: 32,4 km.
- N121A Iruña-Behobia: 62,8 km.

TASA KILOMETROKO

0,22 euro 1 motako ibilgailuei
(3.500 kgtik 12.000 kgra)

0,28 euro 2 motako ibilgailuei
(12.000 kgtik gorakoei)

bi autopista hauetan bidesaria kendu kamioiei. Hortik joango lirateke, zalantzarik gabe. Beraz, garraiolariak ez dituzte argudio ahul horiek sinesten. Helburua, benetan, aipatutako errepideetan trafikoa arintzea eta kamioiak autobidara bideratzea balitz, nahikoa lukete bi autobide horietan ibilgailu astunek bidesaria kentzea. Hala ere, benetan, dirua biltzen ari dira eta aurten ere igo egingo dituzte peajeak, bai Gipuzkoan, bai Bizkaian.

Nafarroako Gobernuak berretsi du bidesariak pixkanaka martxan jarri nahi dituela, autobietatik hasita. N121A errepidean ez da Belateko eta Almandozeko tunelak bikoizteko lanak amaitu arte jarriko. Azkena izango da. Bestetan aurretik jartzeko asmoa dute Nafarroako agintariek. Oraindik data zehaztu ez badute ere, aurreratu dute 2026an abiatuko dutela.

Kamioiek gehienez 0,28 euro ordainduko dituzte kilometroko Nafarroako errepidetan 3,5 tonatik gorako ibilgailuek. Iparraldeko (A1), Sakanako (A10), Leitzarango (A15) eta Ebroko (A68) autobietan jarriko da kamioientzat bidesaria; eta baita hiriburua eta Behobiako muga lotzen dituen N121A errepidean ere. Guztira, 167 kilometro dira.

Esan bezala, ibilgailu astunek ordainduko dute bidesaria, bi taldetan banatuta: 3,5 eta 12 tona bitarteko kamioiek 0,22 xentimo kilometroko; eta 12 tona baino gehiago daramatenek, aldiz, 0,28 kilometroko.

Los camiones pesados pagarán 28 céntimos por kilómetro en las autovías A1, A10, A15 y A68, así como en la N121A

Portugal elimina los peajes de la mayor parte de su red de autopistas

El Gobierno portugués ha decidido eliminar desde enero de sus autovías la mayoría de los peajes que han estado en vigor durante más de 14 años. Se trataba de peajes para todo tipo de vehículos cuyo pago era exclusivamente electrónico a través de los pórticos que se instalaron a lo largo de la red viaria. Ahora han decidido suprimir el pago en todos los tramos donde no existen alternativas que permitan un uso seguro y de calidad, tras la aprobación de dicha medida por el Parlamento portugués a finales de junio del 2024.

Pasan a estar exentas de pago desde el mes de enero: A4, A13 y A13-1, A22 (Algarve), A23, A24, A25 y varios tramos de la autovía del Miño, A28, manteniéndose exclusivamente los peajes en el entorno de Oporto, en concreto en las vías A28 Esposende-Oporto, A41, A42 y A29.

Redistribución del tráfico

Cabe destacar que la mayoría de las autovías españolas también están exentas de pago. Esto permite la redistribución de los tráfico, descongestión de las carreteras y, por consiguiente, la mejora de la seguridad vial. Sin embargo no ha desaparecido el riesgo de que se implante algún sistema de pago por uso con la excusa de sufragar los gastos de mantenimiento.

Errelebo faltari leporatzen dio Guitrans elkarteak gidari profesionalen eskasia

La asociación de empresarios del Transporte de Gipuzkoa, Guitrans, cifra en 500 los conductores profesionales que se necesitan en el territorio. Achacan la «dramática carencia de conductores» a la falta de relevo generacional, «se empieza a sentir el efecto de la jubilación de la numerosa generación del denominado baby-boom». Podrían reflexionar de otra manera, si no hay relevo será por la precariedad y las malas condiciones laborales del sector. Gipuzkoa lleva años sin convenio, en parte por el desinterés de las empresas. De momento, las negociaciones entre patronal y sindicatos, recientemente reiniciadas tras un paréntesis de casi dos décadas, siguen bloqueadas.

Gipuzkoan, gutxienez, 500 gidari profesionalen premia dagoela adierazi du Guitrans, herrialde honetako Garraio Enpresen Elkarteak. Arazoa ondorengo hamar urtetan areagotu egingo dela uste du «erreleborik» ez dagoelako.

Abenduan Guitrans Fundazioak aurkeztu zuen txosten baten arabera, garraio sektoreak garraiolarien premia larriari aurre egin behar dio. «Ez dago belaunaldien erreleborik, horrek egoera gehiago larrituko du; garraiolarien batez besteko adina 55 urtekoa da, hasi da nabaritzen baby-boomaren garaiko belaunaldi ugariaren erretiroaren eragina», betiere, Guitransen txostenaren arabera.

Hiru sindikatuak argi adierazten du beti sektorean jarraipenik ez badago eta gazterik ez badabil, garraiolarien baldintzak asko kaskartu direlako dela. Horretan, azken urteotan, ez du Guitrans elkarteak asko lagundu. Langileen hitzarmenik

sinatu gabe dago herrialdea 2008tik. Iaz ekin zioten berriro hitzarmena berritzeko negoziaketari, baina blokeatuta jarraitzen dute. Momentuz ez da akordiorik.

Aurrerapausorik ez

Aipagarria da Guitransen ez zuela sindikatuarekin esertzeko borondaterik erakutsi eta horiek epaitegira jo behar izan zutela negoziaketa abiatzeko. Enpresa handiek ere sumatzen dute hitzarmenaren beharra, ez soilik gidari profesionalak.

Gipuzkoan garraio arloko hitzarmena berritzeko prozesua hasi bada ere, bi aldeak, enpresari eta sindikatuen ordezkarien proposamenak bata bestearengandik oso urruti daude oraindik.

Behintzat Guitrans fundazioaren txostenak aitortzen ditu garraiolarien premia azaltzeko zenbait arrazoi, esaterako lan baldintza eta soldatak, enpresetan gidariek jasotzen duten tratu txarra, atsedeenleku seguruen falta eta lanean hasteko beharrezko baimenak garestiak direla.

Errentagarritasun aldetik enpresek dituzten zailtasunak ere aipatzen dituzte. Horregatik ez omen dira sektoreko lan-baldintzak hobetzen. Beraz konponbidea, irabaziak handitzea litzateke langileen baldintzak hobetzeko. Neurri interesgarria litzateke enpresari ustez garraiolarien erretiroaren adina aurreratzea ere, erakargarria litzatekeelako sektorean gazteak hasi daitezen.

Guitrans atribuye las malas condiciones laborales en el sector a las dificultades de las empresas para obtener rentabilidad

Kamioien lapur handien bi talde atxilotu dituzte Madrilen

El robo de camiones es cada vez más sofisticado. Han desarticulado en Madrid dos organizaciones que se dedicaban a asaltar camiones y transportistas. Por una parte, un grupo que robaba camiones y extorsionaba a sus propietarios. Y por otra, una red por el robo de veinte camiones y su carga para revender, todo ello, valorado en más de cinco millones de euros.

Kamioiak lapurtzen zituzten bi talde antzeman ditu poliziak 2024 urte amaieran Madril inguruan. Azaroan bat, elikagaiez betetako gutxienez 20 kamioi artikulatu lapurtzeagatik. Bost milioi euroko balioa zuten. Polizia Nazionala eta Guardia Zibila elkarrekin aritu dira eta guztira 34 lagun atxilotu dituzte Toledon eta Madrilen.

Poliziaren arabera, bi saretan banatuta ziren: talde batek, ibilgailuak lapurtzen zituen, eta, besteak, kamioiek garraiatzen zuten generoa merkatu beltzean kolokatu. Bederatzi miaketa egin zituzten Toledon eta Madrilen,

lapurtutako kamioi guztiak berreskuratu dituzte, 100.000 euro eta lapurtutako produktu ugari antzeman.

Ikerketa 2024 urtearen hasieran abiatu zen, elikagaiekin kargatutako hainbat kamioi lapurtu zituztenean. Ondoren, produktu horiek «lowcost» supermerkatuetan saltzen zituzten. Beste lapurreta handi batzuek ere egin zituzten era berean. Zafra ia 300.000 euroko balioa zuten edari alkoholodunen harrapaketa, edota Getafen 700 sukaldeko roboten lapurreta, milioi bat eurotik gorakoa.

Bestalde Madrilen beste era bateko gaizkileak atxilotu zituzten. Kamioiak lapurtu eta itzultzeko dirua eskatzen zien jabeei. Beraz, garraioari estortsioa egiten jarduten ziren Leon inguruan. Hiru gizon atxilotu zituzten Camponarayan 100.000 euroko balioa zuen luma-kamioi bat indarrez lapurtzea eta ibilgailuaren jabeari estortsioa egitea egotzita.

Kamioia lapurtu eta egun batzuetara, jabeari atzerriko telefono zenbaki batetik deitu zioten bankuko bi kontutan dirua sartzeko eskatuz, ibilgailua itzultzeko baldintza gisa. Biktimak 1.000 euro transferitu zituen arren, ez zuen kamioia berreskuratu.

Ponferradako Guardia Zibilak hilabeteetan ikerketa sakona egin ondoren, gaizkile-taldeko hiru kide identifikatu eta Madrilen atxilotu zituzten abenduan.



CRISTALBOX®

**TRUCK
SERVICE**

Servicio especializado para
los profesionales del transporte

Gutxieneko soldata propioa eskatzeko elkartu dira euskal sindikatuak

Los sindicatos ELA, LAB, ESK, STEILAS, Etxalde e Hiru trabajarán conjuntamente para fijar un nuevo sueldo mínimo interprofesional que refleje la realidad socioeconómica y sindical de Hego Euskal Herria. Entienden que sería un avance hacia la soberanía y dieron el primer paso el 8 de enero al registrar tanto en el Parlamento Vasco como en el Parlamento de Nafarroa una Iniciativa Legislativa Popular que culmine con la concesión de la capacidad de regular el salario mínimo a las administraciones de Hego Euskal Herria. Al mismo tiempo también intentarán un acuerdo interprofesional con las patronales. Los sindicatos creen que el Acuerdo Interprofesional y la Iniciativa Legislativa Popular son instrumentos complementarios y han decidido trabajar conjuntamente ambas vías.

Euskal sindikatuak gutxieneko soldata propioaren aldeko ekimena abiatu dute urtarrilaren 8an Nafarroako eta Erkidegoko Parlamentuetan Herri Ekimen Legegilea eskatuta.

Bi bide jorratuko dituzte ELA, LAB, ESK, Steilas, Etxalde eta Hiru sindikatuak. Batetik patronalarekin Lanbide arteko Akordio edo Hitzarmena erdiesten saiatuko dira eta bestalde Herri Ekimen Legegilea abiatu dute Hego Euskal Herriko errealitate sozioekonomikoa eta sindikala islatuko duen LGS berria Euskal Herriaren burujabetzaren aldeko aurrerapauso nabarmena izango litzatekeela uste dute sindikatuak.

«Patronalarekin Akordioa eta Herri Ekimen Legegilea bide osagarriak direla ulertuta, bi bide horiek lantzearen alde egiten dugu» diote sindikatuak.

Esan bezala, bi bideak osagarriak direla uste dute

sindikatuak eta batera jorratuko dituzte, gutxieneko soldata propioa finkatuko duen Lanbide arteko Akordioa batetik eta bertako instituzioek gutxieneko soldata ezartzeko ahalmena izatea helburu duen Herri Ekimen Legegilea bestetik.

Langileei babesa

Gutxieneko soldata ezartzeak langileentzat babes-dimentsioa du, sindikatuen ustez, soldata baxua duten jardueratan ezarriko baita, soldaten egonkortasuna ekarriko du oro har, eta, gainera, aberastasuna banatzeko edota kohesio sozialerako tresna ere izango da. Helburu nagusia pobreziaren mugaren azpitik diren herritarren kopurua gutxitzea eta soldaten goranzko joera bultzatzea.

Euskal Administrazioetan sindikatuak aurkeztutako Herri Ekimen Legegile proposamenean esaten denez «Gutxieneko soldata nabarmen igotzeak eragina izango luke EAeko 200.000 eta Nafarroako 80.000 langile ingurutan, gehienak zerbitzuen sektorean lan egiten dutenak eta lan-baldintza prekarioagoak dituztenak. Alde horretatik, neurri horrek eragin bereziki positiboa izango luke emakumeengan, migratzaileengan, gazteengan eta desgaitasuna duten pertsonengan. Hau da, gutxieneko soldataren igoerak lagunduko luke genero soldata arrakala amaitzen, baita beste soldata arrakala batzuk ere, hala nola jatorriaren, adinaren edo aniztasun funtzionalaren araberakoak» .

«Una subida sustancial del salario mínimo tendría un impacto especialmente positivo sobre mujeres, jóvenes y migrantes»

Charla en Lasarte sobre la campaña Kit Digital que obsequia ordenadores

Kit Digitala ekimenari buruzko hitzaldi informatiboa antolatu du Hiru sindikatuak Lasarte-Orian, urtarrilaren 21ean, asteartean, arratsaldeko 18.00etan, Beterri-Buruntzako Mankomunitatearekin lankidetzan, garraiolariak ordenagailu berria erosteko aukera honen xehetasun guztiak izan ditzaten; jakina da %100eko laguntza daukala garraiolariak bere gestio guztiak erraztuko dizkion ordenagailua eskuratzeko edota bere webgunea sortzeko.

La charla organizada por el sindicato Hiru en colaboración con la Mancomunidad de Beterri Buruntza sobre la iniciativa Kit Digital el día 21 de enero a las 18.00 de la tarde en las instalaciones de Lasarte- tiene el objetivo de informar y transmitir a los transportistas todos los detalles de estas ayudas que les permite obtener un ordenador de manera gratuita para realizar todas sus gestiones o crear su página web.

Los interesados en participar en la charla pueden obtener más información en las oficinas o en la página web del sindicato donde tienen toda la información y pueden rellenar un formulario para inscribirse.

La promoción denominada Kit Digital subvenciona al 100% la adquisición de un ordenador para realizar sus gestiones, facturación electrónica, informes de ingresos y gastos; control de inventario, así como para la elaboración de presupuestos, pedidos o albaranes. También pueden obtener ayudas para la elaboración de la página web accesible y auto-gestionable que desee el transportista con su consiguiente diseño y plan SEO de posicionamiento personalizado y seguimiento mensual.

Deberán rellenar un formulario y elegir el modelo de ordenador profesional portátil o de mesa que mejor le vaya de

una amplia lista publicada por el ministerio.

Ordenador nuevo

El programa del ministerio de transportes fija unas bases reguladoras o requisitos que deben cumplir los transportistas interesados para recibir la subvención. Es un requisito que el ordenador adquirido sea relativamente nuevo, con lanzamiento posterior al primer trimestre de 2023, tarjeta gráfica y de sonido integradas, al menos 2,9 GHz de velocidad, 16 GB de memoria RAM y 512 GB de almacenamiento, entre otros requerimientos.

El transportista también puede consultar y aclarar cualquier duda en la dirección consultasPTS@acelerapyme.gob.es; en el número de teléfono 900 909 001, o presencialmente en las Oficinas AceleraPyme. El programa Kit Digital se enmarca dentro del Plan de Recuperación, el Plan de Digitalización de Pymes 2021-2025 y la Agenda España Digital 2025, tiene un presupuesto de 3.067 millones de euros, financiado por la Unión Europea a través de los fondos Next Generation EU con el objetivo de digitalizar los servicios de autónomos y pequeñas empresas. Las empresas de informática ya están ofreciendo sus propuestas, soluciones y facilidades para acceder al programa.

Urtarrilak 21 asteartean, arratsaldeko 18.00etan, emango dira Kit Digitala deituriko laguntzaren xehetasun guztiak

ERC pide «democratizar» el Comité

Kataluniako ERC alderdiak CNTC Errepideko Garraio Komitea «demokratizatu» beharra aldarrikatu du Diputatuen Kongresuan. Martxoan hasiko da Komitea berritzeko prozesua eta ordezkariak irizpideak aldatzeko eskatu zion Oscar Puente Garraio eta Mugikortasun Iraunkorreko ministroari, garraioan ari direnen %70, garraiolari autonomo eta enpresa txikiak, komitetik kanpo daudelako. Ministroak proposamen guztiak aztertzeko prest daudela aitortu zuen, baina zailtasunak nabarmendu ere bai, araudi aldaketa konplexua eskatzen duela argudiatuz.

Los representantes de ERC en el Congreso de los Diputados interpellaron recientemente al Ministro de Transportes, Oscar Puente porque con la actual configuración del Comité Nacional de Transporte por carretera (CNTC) los transportistas autónomos y pequeñas empresas no están suficientemente representados. La diputada de ERC, Inés Granollers, reclamó «democratizar» el Comité, el órgano por excelencia de representación del sector ante la Administración, de cara a la próxima renovación de este órgano que debe realizarse a partir de marzo.

ERC considera que el criterio que rige la forma de otorgar la representación que ostenta cada organización deja fuera al 70% de los transportistas (pequeñas empresas y autónomos).

Una cuestión de no poca relevancia para ERC si tenemos en cuenta que «solo el 10% del sector está compuesto por las grandes empresas del

transporte y que son los que más representatividad tienen en el Comité, frente a un 20% de medianas empresas y un 70% de pequeñas y autónomos», que estarían infra representados, a su juicio.

Sin posibilidad de entrar

En su argumentación, Inés Granollers denunció que este desequilibrio entre la composición real del sector y su representación en el CNTC provoca que un 10% esté negociando en nombre de todos los trabajadores del sector, y lo achaca al criterio con el que se establece la representatividad de cada organización, que prima el número de camiones de las empresas frente a las autorizaciones de transporte que ostenta cada organización. Este criterio, provoca, en su opinión

que «las pequeñas empresas y los autónomos se quedan sin posibilidades de entrar».

El ministro no lo ve fácil

El interpelado, Óscar Puente, ministro de Transportes y Movilidad Sostenible, señaló que el Gobierno está abierto a estudiar todas las propuestas de cara a la renovación del CNTC, pero «siempre con la máxima solidez, solvencia jurídica y consenso del sector». Eso sí, Puente ya advirtió que cambiar el actual sistema de representatividad de los transportistas no se puede realizar, sólo, cambiando el decreto ministerial que lo regula.

Puente consideró que la modificación afectaría al propio reglamento de la Ley de Ordenación del Transporte Terrestre, «por lo que supondría un cambio de mucho más calado del que pudiera parecer».

Unión de los pequeños

Por último, el ministro de transporte, se mostró convencido de que, pese a que se trata de un sector muy atomizado, con una gran presencia de autónomos y pequeñas empresas, siempre pueden asociarse en organizaciones que aglutinen una representatividad suficiente para solicitar su ingreso en el CNTC.

«Komiteko kideak aukeratzeko irizpideek ordezkari gabe uzten dute garraiolarien %70, enpresa txiki eta autonomoak»



Iñigo Aldalur eta Juanan Kaltzadak ordezkatu zuten Hiru urtarrilaren 11n Bilbon Sareren manifestazioan.



«Behin betiko, bakea, konponbidea eta elkarbizitza» eskatu zuen Euskal Herriko langileriak hiriburuetan

ELA, LAB, ESK, STEILAS, CGT/LKN, CNT, Hiru eta EHNE sindikatuek bat egin zuten abenduaren 20an goizez Euskal Herriko lau hiriburuetan, «Behin Betiko!!! bakea, konponbidea, elkarbizitza» eskatzeko «Euskal preso, iheslari eta deportatuak lantokietara!» leloarekin.

Aipatutako sindikatuen iritziz, Euskal Herriak bizi duen gatazkaren konponbidean urrats garrantzitsuak eman diren arren, korapiloak daude askatzeko, eta salbuespen egoerak hor diraute oraindik: «gaur Iruñan, Gasteizen, Donostian eta Bilbon Hego Euskal Herriko gehiengo sindikala ordezkatzan dugun sindikatuok berriro elkartu gara, gure herriak urtetan bizi izan duen gatazkaren ondorioen konponbideak duen garrantzia mahai gainean jartzeko».

Hiru sindikatuak parte hartu zuen, halaber, Bilbon urtarrilaren 11n, behin betiko, bakea, konponbidea eta elkarbizitza eskatuz burutu zen manifestazioan.

Dos meses más de plazo para sustituir el tacógrafo

Urtarrilaren 1etik aurrera 56 egunetako jardueraren datuak eraman behar ditu nahitaez nazioartean dabilen garraiolariak kamioian. Orain arte erdiak begiratzeko zituzten. Garraiolarien txartel gehienek nahikoa leku dute datu horiek guztiak gordetzeko. Komeni da, dena den, hori horrela dela baieztatzea. Bigarren belaunaldiko takografo berria derrigorrezkoa izango da nazioartean dabilentzat, martxoaren 1etik aurrera. Jarri ez duenak isun handia jasotzeko arriskua izango du. Lehenengo belaunaldiko takografo digitala dutenek, abuztuaren 18ra arteko epea dute aldatzeko.

El transportista debe estar alerta con los cambios normativos en la legislación sobre el tacógrafo digital, ya que corre el riesgo de ser sancionado con severidad. Los que trabajan en rutas internacionales deben disponer obligatoriamente de un tacógrafo digital de segunda generación y justificar si se les requiere la actividad del día y los 56 anteriores. La Comisión Europea ha alargado el periodo para realizar la sustitución hasta el 28 de febrero. A partir de esa fecha los que no dispongan del nuevo tacógrafo pueden ser sancionados con multas cuantiosas, como por ejemplo de 2.000 a 4.000 euros en las carreteras españolas, entre 866 y 3.464 en las italianas, 1.500 en las alemanas o entre 1.200 y 1.600 en las de Portugal. Las sanciones más duras se prevén en las carreteras francesas ya que pueden alcanzar los 30.000 euros e incluso el ingreso en prisión.

Los nuevos tacógrafos acentúan el control de los tiempos de conducción de los transportistas.

Y los agentes encargados de inspeccionarlo podrán obtener los datos desde la distancia. La Guardia Civil dispone de aparatos para recabar la información por control remoto. Las empresas también pueden controlar desde hace años el recorrido de los conductores desde la distancia mediante los localizadores y ahora con el tacógrafo.

La UE aprobó las nuevas normas sobre tacógrafos en 2020. Entraban en vigor el 1 de enero de 2025. Ahora ha alargado el plazo hasta marzo. Le ha llamado «período de dos meses de aprendizaje educativo», y no comenzará a multar hasta marzo de 2025. Las verdaderas razones, entre otras, que muchos transportistas no han sustituido el

tacógrafo, por los problemas de abastecimiento de tacógrafos digitales de segunda generación así como la sobrecarga de trabajo en muchos talleres instaladores.

Mejoras del tacógrafo digital

Esta versión 2, equipada con tecnología punta, presenta varias mejoras con respecto a los de la primera generación; dispone de nuevas funciones como el registro automático del cruce de fronteras; el registro de la posición del vehículo en la carga/descarga, así como, el sistema de teledetección rápida de posibles manipulaciones o la implementación del sistema de autenticación proporcionado por Galileo; y facilita el intercambio de datos con los agentes de control entre otras.

2005eko martxotik aurrera hasiko dira isunak jartzen takografo berririk ez daukaten gidariei. Frantsesak dira zigorrik zorrotzenak.



Takografo berriak aurrekoen antzekoak dira itxuraz.

Los transportistas que tienen tacógrafo inteligente de primera generación también deben sustituirlo, si hacen transporte internacional, en este caso antes del 18 de agosto de 2025. Pero, tienen que tener en cuenta, que desde el 1 de enero es obligatorio enseñar si se les requiere los datos

